

PSren egoitza nagusia arakatu zuten finantzaketa ezkutuko frogen bila


Renaud Van Ruymbeke epailearen miaketak zazpi ordu iraun zuen

Frantziar alderdi sozialistaren Pariseko egoitza nagusia zazpi orduz miatu zuten atzo Renaud Van Ruymbeke epaileak eta berarekin zeuden Polizia Judizialeko hiru kidek. Ezuste handia sortu duen gertakari hau lotua zen Urbatechnic enpresaren aurka bideratua den auzibideari, PSren finantzaketarako falkturazio faltsuak egiteagatik.

ALLANDE SOKARROS / BAIONA

Urba-Technic auzibidearen ardur hartua daukan Renaud Van Ruymbeke epailea arratsaldeko ordubietan azaldu zen PSren egoitzara hiru polizia eta idazkari batez lagundua. Azpimarra daitekeenez, ordu-bete t'erdian lehenago Pierre Mauroy eta Laurent Fabiusen artean alderdi sozialistako buruzagitza aldatetako ekitaldia gertatu zen baina epaileak adierazi zuenez miaketa hori egun berean gertatzea kasualitatea izan zen. Epailea eta polizia arratseko zortziak t'erdia arte egon ziren PSren egoitzan eta aurrean bilduta zeuden kazetariekin topo egin gabe atera ziren bertatik. Jakitera eman zenez, PSko kontuei begiratu ziren epaileak eta txosten batzuk eraman zituen miaketa bukatuta.

ALDERDI SOZIALISTAREN HASERREA Dirudienek, miaketa honek ezustean harrapatu zituen PSko agintariak eta egoitzan bertan zeuden militanteak. Epaile eta poliziek barnean ziharduelarik oraindik, alderdi sozialistak prentsa ohar bat plazaratu zuen miaketa horretaz bere «harridura» adierazteko. Agiri honek zioenez: «PSk ez dio ezer ezkutatu nahi justiziarri baina alderdikerian oinarritua daitekeen urrats baten jasoile ez daiteke egon nahi». PSren egoitza nagusira joan



Fabiusek PSko boterea hartzean sartu ziren poliziak egoitzan.


Mundu politikoaren arakatzailerak

PSren egoitza nagusira miaketa egitera joan aurretik, Renaud Van Ruymbeke epaileak Sarthe departamentuko alderdi sozialistaren egoitza arakatu zuen, hor ere kontuak aztertzeko asmotan. Bestalde, departamentu horretako bi sozialista hautetsi galdekatu zituen epaile berak Urbatechnic gaiarekin ustezko lotura bat izateagatik. Pierre Villa, Le Manseko alkateordea izan zena, eta Jacques Jusforgues, Sarthe departamentuko kontseilari nagusia, astelehenean atxilotu zituen Renneseko Polizia Judizialak eta asteazken goizean jakin zen «txosten faltsuak egin eta erabiltzearen» errua egotzi ondoren aske utziak izan direla.

Ez da lehen aldian Renaud Van Ruymbeke epailea politika munduko ez legezko egiteei lotzen dela. Duela hamahiru urte bere lehen eginbideak aipamen handia ukan zuen, garai hartan Lan ministro zela Robert Boulin eta Henri Tournet promotorearen artean izan zen ustezko tratua bat arakatu bait zuen. Komunikabideek gai horri oihartzun handia eman zioten eta Robert Boulin ministroak bere burua hil zuen, nahiz eta bere familiak ez dion inoiz sinesgarritasunik kausitu azalpen ofizialari.

aurretik, Renaud Van Ruymbeke epailea eta Polizia Judizialeko kideak SAGES deitutako sozietate baten bulegoaren miazten egon ziren. Azterketa bulego honetako zuzendaria PSko kide gisa ezagutua da eta

enpresa hau bera frantses alderdi sozialistako diru iturri ez legezko sanean sartua dela aipatzen zuten. Urbatechnic sozietatearekin lehiazketa batean ziharduen PSko finantzaketa ezkutuari dagokionez.



CUBArako sendagaiak pilatu dituzte azkenaldian Galizian, herrialde karibearrak jasaten duen eskasiari aurre egiteko. Cuba-Galizia Adiskide Elkarteak izan da hain zuzen ere 500 kilogramo sendagai biltzea lortu duena, eta atzo bertan hasi ziren Cubara Madrilend bidez bidaltzen. Herrialde amerikarrak jasaten duen krisi ekonomikoa, EEBBen blokeoa eta Eki Europako erregimenen beherakadak ekarri du cubatarrak sendagairik gabe geratzea. Lehen Soviet Batasun eta Ekialdeko herrialdeetatik eskuratzen zituzten.



Jose Antonio Griñanek Osasun ministro kargua zin egin zuen.

Jose Antonio Griñanek Osasun ministro kargua zin egin zuen

MADRIL

Jose Antonio Griñan Osasun ministro berriak kargua zin egin zuen atzo Juan Carlos erregea eta Felipe Gonzalez Gobernuaren lehendakariaren aurrean. Jose Antonio Griñanen hautaketa Julian Garcia Valverde aurreko ministroa Renfe auzia dela eta dimititu zuelako etorri da.

Osasun ministroa izendatua izan aurretik, 46 urteko Jose Antonio Griñan Andaluziako Osasun sailburua izan zen azken hauteskondeetatik hona. Kargu horretan izan zen urte t'erdian, Griñanek Andaluziako Osasun Zerbitzuaren izugarriko zorrari (100.000 milioi pezeta ofizialki, baina 300.000 inguru sindikatuen ustez) egin behar izan dio aurre. Hau aurrera eramateko finantzaketa sistema aldatzen saiatu zen eta oniritzia eman zion lehen unetik, Osasun Zerbitzuaren privatizazioa bultzatzen duen Abril txosten famatuari.

Kargua hartu ostean emandako hitzaldian, Griñanek «Osasuna estatala eta publikoa dela» azpimarratu zuen eta laguntza eskatu zuen «Osasunak pilaturik duen bilioi bateko zorra txikitze».

Elkarte autonomi bakoitzeko arazo zehatzak konpontzeko akordiotara iristea defendatu zuen, «beti ere elkartasunaren printzipioari jarraituz». Abril txostenari dagokionez, Griñanek «txostenak planteatzen dituen 64 galderekin ados zegoela» adierazi zuen, baina ez ordea «erantzun guztiekin».

GONZALEZEK VALVERDE GORAIPATU Felipe Gonzalezek hitz onak besterik ez zituen izan berak hautatutako Griñan ministro berriarekin. Osasun arloa eta Gizarte Se-

gurantzako ondo ezagutzen dituela azpimarratu zuen Gonzalezek, «eta hori dela eta, aurrekoak egindako lana eten gabe sartuko da Ministeritzan». Bat egin zuen lehendakariak Griñanek Abril txostenaz duen iritziarekin, baina ez zitzaizkiola txosten horren puntu guztiak gustatzen aitortu zuen.

Garcia Valverderi dagokionez, Gonzalezek txalotu egin Renfeko lehendakari ohiaren dimititzeko erabakia, «pertsonek erabatu duina izan delako eta politikoki erantzukizuna beregain hartu duelako». Garcia Valverderen dimisioa Legebiltzarrean azaldu beharrik ez zuela esan zuen gobernuburuak.

IRITZI DESBERDINAK SINDIKATUETAN CEMS medikuen sindikatuen idazkari

nagusiaren esanetan, «Griñan pertsona egokia izan daiteke, orain arte gelditurik egon den Ministeritza martxan jartzeko. Andaluzian erakutsi du kudeatzaile egokia dela, nahiz eta greba batzuk izan dituen eta Osasun Zerbitzuaren erreforma aurrera atera ezin izan duen». Osasun Publikoaren aldeko Elkarteak lehendakaria bat etorri zen CEMSe-kin, bien ustez «ministro izan zitezkeen artean, hau delako Osasunarekin harremanak izan dituen bakarra». Era berean mintzatu zen ere SATSE erizainen sindikatuko ordezkaria.

CCOO ordea «kezkatuak» dago ministro berriaren izendapena dela eta, bere ustez «Griñan ez delako Osasun publikoaren defendatzaile moduan agertu, eta Abril txostena defendatu zuen bakarrenetakoa izan zen».

Ustelkeria Francoren garaikoa baino handiagoa da Taranconen ustez

XEREZ

Espainiako eliza katolikoaren buru izandako Tarancon kardenalak bat egin zuen atzo Jose Maria Aznar PPko lehendakariak ustelkeriari buruz egindako adierazpenekin, eta «gaur egun ustelkeria, Francoren garaikoa baino handiagoa dela» esan zuen atzo Xerez (Cadiz).

«Uste genuen erregimenez aldatzean, aurrekoaren ustelkeria desagertu egingo zela, baina desagertu ezean, handitu egin dela antzematen da» esan zuen Taranconek. Kardenalaren hitzetan, «ustelkeria ez da esaten den hainbatekoa, baina dagoenak psikosia sortu du espainiarrengan».

Gonzalez Mexico eta Colombiara joan zen bisita ofizialean

MADRIL

Felipe Gonzalez Espainiako lehendakaria Mexicora abiatu zuen atzo eguerdian Amerikako zenbait herrialdeetara egingo duen bisitaldiari hasiera emateko. Gaur bertan, James Baker Estatu Batuetako Estatu idazkariarekin bilduko da, El Salvadorreko Bake Hitzarmenaren sinadura ekitaldira joan aurretik. Lehendakari espainiarren esane-

tan, «Espainiak zeresan handia izan du hainbat urtetako gerrari amaiera ematen dion hitzarmena lortzeko orduan».

Mexicon bertan, Gonzalez Nazio Batuetako (NBE) idazkari nagusi hautatu berri duten Butros Ghali egiptiarrarekin elkarriketatuko da. Bilera horren ostean, Gonzalez Colombiara abiatuko da Cesar Gaviria lehendakariaren gonbiteari erantzuteko.